

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAK (2011/2) (EHAA, 2011-09-08)

NORK HAR DEZAKE PARTE? (2. oinarria)

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko langileek, beti ere, euren lanpostuak apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ezarpen-esparru barrukoak badira.

Justizia Administrazioaren zerbitzuko Kudeaketa, Izapidetze eta laguntza Judizialeko, Auzitegiko Medikuen kidegoko eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoko funtzionarioek, uztailaren 29ko 152/2008 Dekretuak ezartzen duenaren arabera.

Baita Euskal Autonomia Erkidegoko karrera judizialeko kideek ere.

Osakidetzako langileek, bestalde, aukera izango dute 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketaldian parte hartzeko, beti ere, 2008ko martxoaren 14ko datuz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko arloan sinatutako Akordioaren baldintzak betetzen badituzte.

ZEIN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNETARA AURKEZ DAITEKE? (1. oinarria)

1., 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizunetako probak egiteko aukera dago, beti ere, deialdiak eskatzen dituen baldintzak betetzen badira.

AZTERKETEN APLIKAZIO-ORDENA (9, 10, 11 ETA 12. oinarriak)

2011ko 2. deialdian ez da Atariko probarik aplikatuko. Edozein hizkuntza eskakizun egiaztatzeko prozesuak bi proba besterik ez du izango. Proba horiek idatzia eta ahozko proba izango dira, eta hurrenkeran aplikatuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta horiek aztertu ondoren, proba idatzirako deia egingo du IVAPek bere web-orrian (www.ivap.euskadi.net/ Euskara atala / Hizkuntza-eskakizunak azpiatala) eta bere iragarki taulen bidez. Deiarekin batera jakinaraziko da proba idatzian parte hartu behar dutenen zerrenda, azterketa tokia, eguna eta ordua.

Hizkuntza-eskakizun bakoitzaren proba idatzia zuzendu ondoren, emaitza IVAPen web-orrian argitaratuko da.

4. HEko AZTERKETARA AURKEZTEKO BALDINTZAK (3. oinarria)

- Lanpostuan hizkuntza-eskakizuna ezarrita daukaten langileak badira:
 - Lanpostuan 4. HE ezarrita izatea, edo
 - lanpostuan 3. HE ezarrita izanik, 3. HE hori egiaztatuta edo baliokidetuta izatea, edo
 - lanpostuan beste hizkuntza-eskakizun bat ezarrita izanik, gutxienez unibertsitateko erdi mailako titulazioa izatea eta 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edo baliokidetuta izatea.
- Lanpostuan oraindik hizkuntza-eskakizunik ezarrita ez daukaten langileak badira:
 - Unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulazioa izatea.
 - 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edo baliokidetuta izatea.

AURKEZTEKO ESKABIDEA (4. eta 5. oinarriak)

- **Eskabide-orria**

Eskabide-orriaren eredia deialdiaren eranskinean argitaratzen da buletinean. Interneteko helbide honetan ere eskuragarri dago: www.ivap.euskadi.net/ Euskara atala / Hizkuntza-eskakizunak azpiatala.

Eskabidea IVAPen edozein egoitzatan aurkeztu behar da:

Donostia-San Sebastián kalea 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Errekalde zumarkalea 18. 48009 Bilbao
San Bartolomé, 28. 20007 Donostia-San Sebastián
Unibertsitateko etorbidea. 20560 Oñati

Halaber, eskabideak 30/1992 Legearen 38.4. atalak dioen edozein eratan ere aurkez daitezke.

- **Eskabide elektronikoa**

Eusko Jaurlaritzako langileek era elektronikoan egin beharko dute deialdi honetarako eskabidea intraneteko Jakina atariko IVAPen orrian sartuko dira, eta horren barruan HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK atalean. Handik, XL-

Nets segurtasun sisteman sartu eta gero, ALTA/ALDAKETA gunean agertuko da eskaera elektronikoa egiteko jarraitu behar duten bidea. Eskabide elektronikoa egiten duenak ez du paperezko eskabidea entregatu behar.

Epea

Irailaren 9tik 23ra, biak barne.

Eskabide-orriarekin batera aurkeztuko den dokumentazioa

Dokumentuak	Zein kasutan aurkeztu behar d(ir)en
<ul style="list-style-type: none"> Nortasun Agiriaren fotokopia. Funtzionario izendapenaren edo lan-hitzarmenaren fotokopia. (5. oinarria). 	<p>Lehenengo aldiz aurkeztuz gero edo lanpostuz aldatuz gero.</p>
<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako tituluaren fotokopia. (3. oinarria). 	<p>4. HEko azterketara lehenengo aldiz aurkeztu, eta azterketa egin ahal izateko unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulazioa beharrezkoa izanez gero.</p>
<ul style="list-style-type: none"> 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea den tituluaren fotokopia. (3. oinarria). 	<p>4. HEko azterketara lehenengo aldiz aurkeztu, eta 3. HEren baliokideren bat edukiz gero.</p>